

EBAZPENA, 2022ko URTARRILAREN 24koa, UPV/EHUko GERENTEARENA, ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO (AZP) LANGILEEI DAGOZKIEN ALDI BATERAKO ZERBITZUAK EMATEKO KUDEAKETAKO ESKALA TEKNIKOKO (PREBENTZIOA) LAN-POLTSA ZABALTZEKO HAUTAKETA-PROZESUA BEHIN BETIKO EBAZTEN DUENA.

EHUko gerentearen 2021eko urtarrilaren 28ko Ebazpenaren bidez, hautaketa-prozesurako deialdia egin zen, Kudeaketa Eskala Teknikoaren (Prebentzioa) lan-poltsa zabaltzeko, administrazio eta zerbitzuetako langileen aldi baterako zerbitzuak emateko.

Deialdiaren 6.5 eta zazpigarren oinarrietan ezarritakoarekin bat etorrituz, epaimahaiak, 2021eko azaroaren 4an, merezimendu eta euskara lehiaketaren faseen behin betiko emaitzak argitaratu zituen, bai eta hautaketa prozesua antolatzeko proposamena ere, seigarren oinarriko zazpigarren atalean adierazitako hedabideetan, eta UPV/EHUko Gerentzia honi helarazi zion, prozesuaren behin betiko ebazpena eman dezan.

Merezimendu lehiaketaren eta euskararen faseetako behin betiko emaitzen aurka, horretarako emandako epearen barruan, gora jotzeko bi helegite aurkeztu dira, eta Gerentzia honek horietako bat partzialki onetsi zuen, eta bestea osorik balioetsi zuen.

Era berean, epaimahaiak egindako hurrenkera proposamenaren aurka eta horretarako emandako epearen barruan, gora jotzeko helegitea aurkeztu da, eta Gerentzia honek ezesteko ebazpen bidez ebatzi du.

Era berean, epaimahaiaren proposamenaren aurka, gora jotzeko helegitea jarri zuen hautagai batek horretarako ezarritako epean, eta Gerentzia honek ezesteko ebazpen bidez ebatzi du.

Hori guztia kontuan hartuta, deialdiaren arauari jarraituz, eta UPV/EHUko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakiak eman dizkidan eskumenak erabiliz (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko eta eskumenak eskuordetzeko erabakia, 2021eko otsailaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria), honako hau

ERABAKI DUT

Lehena. – Helegileen puntuazioak aldatzea emandako errekurtsoen ebazpenei jarraiki eta hautaketa-prozesuaren behin betiko hurrenkera berria onartzea, Kudeaketa Eskala Teknikoko (Ingurumena) lan-poltsa zabaltzeko (ebazpen honen I. eranskina).

Bigarrena. –Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke gerenteari hilabeteko epean, edo, bestela,



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

administrazioarekiko auzi errekurtoa jar daiteke zuzenean, dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean. Epe horiek Erabakia UPV/EHUren web orrian (Administrazio eta Zerbitzuen Pertsonala, Hautaketa eta Hornikuntza) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontatzen. Epe horiek Erabakia UPV/EHUren web orrian (Administrazio eta Zerbitzuen Pertsonala, Hautaketa eta Hornikuntza) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontatzen

Leioan, 2022ko urtarrilaren 24a.

Lorea Bilbao Artetxe
UPV/EHUko gerentea